Unidad de Calidad
Kalitateko Unitatea

# XIII. ENPLEGU FOROAN PARTE HARTU DUTEN ENPRESEN GOGOBETETASUNA NEURTZEKO INKESTEN EMAITZEN TXOSTENAREN LABURPENA

## 2016/2017 IKASTURTEA

## 1. LAGIN GONBIDATUAREN DATUAK

Txosten honetan aurkezten diren datuak 2017ko martxoaren 30ean egin zen XIII. Enplegu Foroan parte hartu zuten enpresek egindako ebaluazioaren emaitza dira.

Ikergai ziren 53 enpresetatik 46ren datuak jaso dira, hau da, parte hartu dutenen % 86,79rena.

## 2. EMAITZAK

Ondoren informazio hauek ageri dira:

2.1. 2.1. 6. itemaren batez besteko puntuazioaren grafikoa eta 2015-2016 eta 2014-2015 ikasturteekiko konparaketa.

2.2. 1, 3, 4, 5 eta 7. itemen erantzunen portzentajeen grafikoak eta 2015-2016 eta 2014-2015 ikasturteekiko konparaketa.

2.3. 2. itemaren erantzunen portzentajeen grafikoa eta 2015-2016 eta 2014-2015 ikasturteekiko konparaketa.

2.4. 8. itemaren erantzunen portzentajeen grafikoa.

2.5. XIII. Enplegu Foroan parte hartu duten enpresek azpimarratu dituzten alde onak.

2.6. XIII. Enplegu Foroan parte hartu duten enpresen ustez hobetu beharrekoak eta DeustoAlumni – Enpleguak hobetzeko egingo dituen ekintzak

Deusto
Unidad de Calidad
Kalitateko Unitatea

**2.1. 6. itemaren batez besteko puntuazioaren grafikoa eta 2015-2016 eta 2014-2015 ikasturteekiko konparaketa (egin ahal izan den itemetan.** 1etik (gogobetetasun oso baxua) 5erainoko (gogobetetasun oso altua) eskala.



## 2.2. 1, 3, 4, 5 eta 7. itemen erantzunen portzentajeen grafikoak eta 2015-2016 eta 2014-2015 ikasturteekiko konparaketa (egin ahal izan den itemetan).



## 2.3. 2. itemaren erantzunen portzentajeen grafikoa eta 2015-2016 eta 2014-2015 ikasturteekiko konparaketa.



Unidad de Calidad
Kalitateko Unitatea

## 2.4. 8. itemaren erantzunen portzentajeen emaitzen grafikoa.

### 8. itema: Deusto Alumniren zerbitzuak



## 2.5. XIII. Enplegu eta Ekintzailetza Foroan parte hartu duten enpresek azpimarratu dituzten alde onak.

- **Antolaketa ona eta aukeratutako toki egokia.** Urritik, bi pertsona ari gara Enplegu Foroaren antolaketa lanetan. Horregatik antzematen dute enpresek antolaketa ona dagoela. Beti eskaintzen zaie bana-banako tratua. Bestalde, tokia dela eta, esan behar da ekitaldia Eraikin nagusian egiten dela, ikaslerik gehienentzat pasokoa den tokian, eta horrek eragiten du ikusgarriagoa egitea.

- **Esperientzia positiboa ikasleen laneko etorkizunari begira.** Enpresen komentarioa izan da oso profil onak bildu dituztela. Gradu bikoitzek oso onarpen handia dute foroan parte hartzen duten enpresen aldetik.

## 2.6. XIII. Enplegu eta Ekintzailetza Foroan parte hartu duten enpresen ustez hobetu beharrekoak eta DeustoAlumni – Empleguak hobetzeko egingo dituen ekintzak

- **Beste urte batzuetan baino jende gutxiago.** Uste dugu aurten aurreko urteetan baino jende gehiago egon dela, bai standak bisitatzen, bai aldi berean antolatutako jardueretan. Hortaz, bertaratuen zenbakia era objektiboan kontatzeko ahalegina egingo da.

- **Ekitaldia egun bakarrera ekartzea.** Uste dugu foroaren iraupena egokia dela; egun bakarreko foroa antolatzea ez du merezi, giza baliabideetan eta baliabide ekonomikoetan egiten den inbertsioa handia da eta.

- **Data desegokia, azterketa garaia da eta.** Martxoa (foroa egiten den hila) ez da azterketa garaia, nahiz eta unean uneko azterketaren bat egon daitekeen. Halakorik berriro gerta ez dadin, fakultate guztiei jakinaraziko diegu noiz den foroa, planifikatzen dituzten jardueren barruan Enplegu Foroa egon dadin.